


Kostuen egitura



Enpresa bat zerotik hasten denean, eraikitze prozesu bete-betean dagoenean, lehenengo hilabeteetako kostuak handiak izaten dira. Pixkanaka joaten dira gutxitzen, baina hasiera nahiko bortitza izaten da alderdi honetatik.


Lehenik, sentsoreen kostua. Lehenengo hilabetea denez, Donostia guztian pixkanaka instalatzen joateko sentsoreak erosiko ditugu. 50€ balio du bakoitzak eta hasiera batean behintza 500 beharko genituzke. Bigarrenik, sentsore hauek instalatuko dituzten langileei ere beren ordainsaria emango diegu, 8 eguneko lanaren ostean 2.800€ jasoko dute guztira.

Bestetik, kostu finkoa denez, hilabetero ordaindu beharreko kostua, lokalaren alokairua. 600€ -ko kostua du honek hilabetero. Ordenagailuek eta abarrek funtzionatzeko beharrezko elektrizitatea, argia eta lau telefonoen tarifa ere hilabetero bera ordaintzen dugu. Elektrizitatearen kasuan 30€ hileko eta telefonoarenean 20€.

Aplikazioaren diseinua eta marketina eramango dituen enpresaren subkontratazioak 800 euroko kostua du hilabetero. Eta azkenik, bost bazkideen soldata, bakoitzari 965€ dagokio.

Kalkuluak egin ostean, lehenengo hilabeterako, enpresa irabaziekin aterako litzateke, soldatak eta gainerako guztia ordaindu ostean ia bi mila euro geratuko lirateke aurrezki moduan, bankura eramateko. Baina kontutan hartu beharra dago hurrengo hilabetetik aurrera maileguaren itzulketarekin hasi beharra dagoela.

Kostuen egitura



IRABAZIAK		
SARRERAK	GASTUAK	IRABAZIAK
35.315€	33.335€	1.980€

**MANEX HUARTE, IKER ISASA, AINHITZE
ZUBIRI, BEÑAT ETXEBERRIA ETA OIER GASTESI**

KOSTUAK LEHENENGO HILABETEAN			
Kontzeptua	Prezioa	Kopurua	Guztira
Sentsoreak	50€	500	25.000€
Sentsoreen instalakuntza	250€/eguneko	8 egun	2.800€
Lokalaren alokairua	600€/hilabete	x1	600€
Elektrizitatea (wifia, argia...)	30€/hil	1	30€
Telefonoa eta haren tarifa	20€/hil	4	80€
Aplikazioaren eta marketinaren subkontratazioa	800€/hil	1	800€
Bazkideen Soldata	965€	x5	4.825€
		Guztira:	33.335€